



(\*) Itten: arrastua, pista

## >> JAKINGARRIXA

### Etxe izenak (2)

Ogibidiak emundako etxe-izenen zirindaria luzia danez, eta bakoitza bere izenaz ezaguketia ondo etorriko xakunez, hona hemen beste lau etxeren erretratuak, bertan denpora batian izenak adierazten dauen langintza hori egitten eben norbait, edo, haren tartekoren bat bizi izan zan seiñale:



*Lehengo Txaiñena* (1)  
(San Anton kalian)



*Oraingo Txaiñena*  
(San Anton kalian)



*Migelkapagiñ(ari)ena* (2)  
(Patrua kalian)



*Sillerona* (3)  
(Kale Barrixan)



*Uztargilliarena* (4)  
(Kale Zaharrera eta Aita  
Madina kalera emuten dau)

**Oharrak:** (1): txaiña=zaiña=zaintzen dauena=guarda; (2): kapagiña=ganaduendako mantan egitten zittuana; (3): sillerua=sillak egitten zittuana; (4): uztargillia=uztarririk egitten zittuana

## >> Euskaraz egogi

Batzuetan, gaizki tajututako esaldi honeik entzuten dira: \**susaak zelai bertan topau dittugu*, edo \**plaza bertatik pasau ziran Arantzazurako bidian*.

Bistan da, esaldi horreik akastunak dirala, holako esalditan izena bera eta indargillia, hau da, elementu bixak deklinaiten diralako modu honetan:

*Susaak **zelaiXAN bertan topau dittugu**.*

Arrixak **plazaTIK bertatik pasau ziran Arantzazurako bidian**.

Adibide gehiago:

**EtxiAN bertan topau daue hilda.**

**EtxeTIK bertatik etara daue kamillan**

**EtxeRAIÑO bertaraiño etorten xako medikua.**

...Lekuzko kasu danetan bardin jokatu bihar da:

**Nun: HerriXAN bertan badago nahikua entretenimendu, iñora mobiu barik!**

**Nungua: HerriKUA bertakua da gizon hori, bertan jaixua eta bertan hazittakua.**

**Nundik: Gaztiaguak giñanian herriTTIK bertatik urtenda faten giñan oiñez Aizkorriaiño.**

**Nora: Ezaguketan dozu Osinagakua baserrixa? Entzunda dakot, baiña haRA bertara oraindiok aillegau barik nago.**

**Noraiño: Laurogeita hiruko uraunditan ura ixixa etxeRAIÑO bertaraiño aillegau xakun.**



(\*) Itten: arrastua, pistia

## >> JAKINGARRIXA

### Etxe izenak (3)

Hainbat etxeren izenak pertsona izenetatik datoz. Herrixan badogu holako mordua, hau da, etxeko jabiaren izena hartu dauein etxiak, esaterako: Pako, Rita, Silbestra, Bartolo, Andina, Lukas, Pedro, Migel, Joxe haundi, Kaxinto, Kaximira, Juanitosia, Santos, Romulo, ... Normalian izen horreik eztira izaten ofizialak, jentiak bere artian entendituko ebaltzen dittuanak baiño. Hona hemen, bada, pertsona izena dakoin herriko lau etxeren erretratuak:



*Martoluen*a ingurua lehen



*Matingua* kale-baserrixa



Elorriaga etxia (*Lukasena*)  
(Kale Barrixa - Atzeko kale)



*Martoluen*a ingurua gaur egun  
(Kurtzebide kalia)



*Matingua* eguen lekua  
(Lazarraga kalia)



*Donpedruena*  
(Kale Barrixa - Atzeko kale)

## >> EUSKERAZ EGOGI: **Bat** eta **Bera**

Euskera estandar edo batuan ez letxe, geure berbetian **azentuaren bittartez** bereizten dittugu “bat” artikuluz zihaztubagia (erderazko ‘un, uno, una’) eta “bát” inddargille funtziñua beteten dauena (erderazko ‘el mismo, la misma’). Horra hor azentuak zer inportantzia dakon esanguria desbardiñketarunzkuan. Ikusi degigun batian eta bestian zela egitten dan, oso kuriosua da eta. Euskera estandarrian, hirugarren aukeria, *ber-* aurrikixaren bidez sortutako erakusle inddartuakin egitten da.

**Zer edo Nor:** *Etxe bat saldu dostei, apartamentu baten orde*z (una casa)

*Etxe bát saldu doskue, baiña, bixoi!* (la misma casa)

*Etxe bera saldu digute, baina, bioi!* (la misma casa)

**Zeñen:** *Horreik be ama / aitta baten umiak dira* (de un padre o una madre)

*Horreik danak ama / aitta báten umiak dira* (del mismo padre o madre)

*Horiek denak ama / aitta beraren umeak dira* (del mismo padre o madre)

**Nun:** *Uhe baten egitten dogu lo, eta ez litera baten* (en una cama)

*Uhe báten egitten dogu lo* (en la misma cama)

*Ohe berean egiten dugu lo* (en la misma cama)

**Nungo, nundik, nora, norako, noraiño** eta **zeiñekin** kasuetan, behintzat, bardin egitten dogu.



(\*) Itten: arrastua, pistia

## >> JAKINGARRIXA

### Etxe izenak (4)

Hainbat etxeren izenak, berriz, fameliaren deitura edo abizenetik ezaguketan dira. Herrixan badogu holako mordia, eta horreittako asko maiorazko etxiak dira, kale goixenetik hasitta honako honeik, esaterako: *Agerre-Gomendio, Arzelus, Otadui-Jausoro, Araotz-Lazarraga, Garai, Antia, Madinabeitia, Larrastegi, (E)gaña, Zarate, Galarza, Lazarraga, Astorkitza, Hernani, Gereka, Bergantzo, Illarramendi, Zulueta-Uriarte, Gerra, Mendia, Altzaa-Lizaur,...*

Normalian abizen horreiri 'zeiñena' deklinabide kasua erantsitta ebaltzen dira izenok: *Garaiñena, Antixena, Madinabeitiana, Lizaurrena, ...* Hona hemen, bada, euren abizenaz izentaitzen diran herriko hiru etxeren erretratuak, lehenengo illarakuak aspaldikuak, eta, bigarrenekuak, ostera, orainguak:



Altzaa-Lizaur etxia, Kale Zaharrian



Zarate etxia, San Anton kalian



Hernani etxia, Unibersidade etorbidian



Altzaa-Lizaur etxia



Zarate etxia



Hernani etxia

## >> EUSKERAZ EGOGI:

### Hoba zuan/zunan... Biharrago zuan/zunan...

Erderazko 'cuánto mejor habría sido' esateko harridurazko espresioño honek ebaltzen dittugu: **hoba zuan/zunan...**, edo, **biharrago zuan /zunan...** Sarrittan entzuten diran ezkerro, merezi dau goguan hartzeia eta balixaittia. Hona hemen adibide batzuk:

- **Hoba zuan** etorri ezpalitzuk! / **Hoba zunan** etorri ezpalitzun!
- **Biharrago zuan** mutilzahar geratu bahintza! / **Biharrago zunan** neskezahar geratu bahintza!
- **Hoba zuan** geldi-geldi egon bahintza! / **Hoba zunan** geldi-geldi egon bahintza!
- **Biharrago zuan** gaur uhetik jaiki ezpahintza! / **Biharrago zunan** gaur uhetik jaiki ezpahintza!
- **Hoba zuan** lagunakin urten bahian! / **Hoba zunan** lagunakin urten bahian!
- **Biharrago zuan** fraide sartu bahintza! / **Biharrago zunan** monja sartu bahintza!



(\* Itten: arrastua, pista)

## >> JAKINGARRIXA

# Etxe izenak (eta 5)

**EZIZENETATIK ETORRITAKUAK:** Etxe-izenen sailleri akaberia emuteko, ezizen batekin ezaguketan diran etxiak aittatuko ditugu. Ezizenen gaixa luzia duin zabala danez, mereziko leuke artikuluz luziago batian gaixa hobeto jorraketa, baiña gaurkuan, esandako moduan, bakar-bakarrik etxe-izenai lotutako ezizenak landuko ditugu. Bi modukak dagoz: a) Personari emundako ezizena etxiak berak hartzen daueiñak, adib.: *Pekeño* bada personia, ha bizi dan etxiari *Pekeño*na esango xako. Eta *Mákatx* bada bizilaguna, *Makátxena* izango da haren etxia. b) Beste batzuetan, berriz, etxiak ezizen bat dako, eta orduan han bizi dan lagunak edo famelixiak etxiaren izena hartuko dau, adib.: *Txaiñena* etxiak, *Txaiña* ezizena emun xao bertako famelixiari, edota, *Petokiñena* etxiak, *Petokin*, hango famelixakuari.

Hona hemen, esplikautakuaeren erakusgarri, ezizen bategaz izentaiten diran kaleko etxe batzuk, goiko illaran lehenagoko irudixak, eta, behekuan, gaurkuak:



*Behetik gora, Otsuana, Azpeittixena, Kirriñena eta Metalgua (San Juan kalia)*



*Txapelena (Mendiko kalia)*



*Errementarixenetik Petokiñenera (Kale Zaharra)*



## >> EUSKERAZ EGOGI:

### Bihar be!

Harridurazko espresiño hau oso entzuna da, eta ironia zentzuagaz desadostasuna adierazteko ebalten dogu, era honetan:

- A.-** *Pattar kopia etarako dostazu?* **B.-** *Pattarra? Hik bihar be, lehendik ez hago nahikua hartuta, ala?*  
**A.-** *Guriak gaur be afarixa dako, ba!* **B.-** *Harek bihar be, puntuan-puntuan etxetik kanpora afaritten dau-eta!*  
**A.-** *Datorren astian kanpora noia berriz!* **B.-** *Hik bihar be, oraintxe puntuan etorritta hago-eta!*  
**A.-** *Billotz-jana dakogu zapatuan!* **B.-** *Bai, zuek bihar be, gose antxian ibilliko zarai-eta!*

### Ezta bihar be!

Espresiño hori, berriz, erabateko ukapena adierazteko ebalten dogu. Halaxe:

- A.-** *Orainguan etxaku tokau loterixia.* **B.-** *Ezta bihar be!*  
**A.-** *Ardaurik eztoskue etara bazkaritteko.* **B.-** *Ezta bihar be!*  
**A.-** *Domeka honetan eneben jente larregi ikusi Urbixa aldian.* **B.-** *Gehixago, ezta bihar be!*  
**A.-** *Orainguan eztoskue diarrik egin boluntarixo fateko.* **B.-** *Ezta bihar be! Ingiratuko dittuk gu barik!*

(\*) Itten: arrastua, pistia



## >> JAKINGARRIXA

# Txarriduna eta Txarraskuena

Kale Barriko bi etxe honein esanguria aztertuko dogu gaurkuan. Tradiziñuak dixuenez, Kale Barriko 8xan —lehen (1970 ingurura arte) *Txarriduna* tabernia eta jatetxia egon zan lekuan, eta gaur egunian San Migel kooperatibia dagueu orubian— ei eguen Rodrigo Mercado Zuazolaren jaiotetxia. Horregatik dittu, itxuria danez, aurreko eta atzeko fatxadetan Zuazola obispuaren armarrixaren kopixak. *Txarriduna* izena jabiaren ogibidetik dator; izan be, Zaldibiatik Oñatira etorritako sukiatar bat txarri-saltzaillia edo tratantia zan, eta horregatik, bera '*txarriduna*' zalako, famelixiak jarritako jatetxiari be izen hori ifiñi otsain.

Gorago, Kale Barriko 44an, dogun beste etxia *Txarraskuena* da. Kuriosua da etxe honen izenak gordeten dauen esanguria, hori be ogibide bateri lotutakua. Aspaldiko agiri batian agerketan da: "*Casa de Txarraskuena, donada por el Señor de Lazarraga ...*". Etimologiari erreparauta, era honetan banaanduko litzake berbia: Txarri+aska=txarraska. Txarraska+guen etxia= Txarraskaguena -----Txarraskuena----- eta 'Txarrasko' (etxe horretako bizilaguna). Txarraskagillia= txarraskak egitten zittuana.



Txarriduna



Txarraskuena zaharra  
Agustin Ugarteren margolana



Honbrena eta Txarraskuena barrixa

## >> EUSKERAZ EGOGI:

Denporazko esaldittan sari entzuten diran bi berba aittatuko dittugu orainguan: '**puntu**', eta '**puntuko**', eta horren forma inddartua dan '**puntukotxe**'. Etsenpluetan ikusi zenbat esangura hartzen dauein:

### PUNTU:

- **Puntuan** ikusi dot. **Puntuan** aillegau da. (Orain dala gutxi).
- **Aurki puntuan**, hemen eztozue zuririk ikusiko. (Laister, denpora gutxi barru)
- Kubara **puntuan behin**, edo **puntuan-puntuan** faten da. (Sarri, askotan)
- Eguardiko ordu bittan **puntu-puntuan** urtengo dau lanetik. (Justo ordu horretan)

### PUNTUKO/TXE: Puntuko-ren inddartua

- **Puntuko/txe** konpondu dau ordenadoriaren aberixia. (Berihala, oso denpora gutxixan)  
Berihala, oso denpora gutxira esanguriarekin:
- Aspertu egingo zan lagunakin, **puntuko/txe** agertu da eta.
- Kalera urten dau, baiña **puntuko** etorri da.
- **Puntuko/txe** ezkondu eta birkixak ekarri zittuan.
- Gaixorik eguela eta, **puntuko/txe** hil zala entzun geben.





(\*) Itten: arrastua, pistia

## KALE ZAHARRA BARRENEKO ETXE-IZENAK

Oraingo honetan Kale Zaharra barreneko planuaren bittartez eta orduko izenak ebaliaz, duela hirurogei edo hirurogeita hamar urteko, hau da, XX. gizaldiko erdi inguruko herriko etxe-izenen barri emun gura dotsuegu; izan be, gero esplikaiko dogun moduan, kale horretan pasaiten zana herriko beste kale guztietan pasaiten zan.

Kale Zaharrera etorritta, hauxe ikusten dogu: orduko etxe batzuk oraindiok zutik dirae, beste batzuk barrizta egin dira lehengo egitturia gordeta, edota aldatuta, lehengo birekin barri bat egindda, esaterako. Beste bakanen baten ortua eguen lekuan, etxia egin edo bota egin da, besterik barik; baiña, tira, aldaketak aldaketa, Kale Zaharra—oraindiok be— lehengua dala, ezaguketako moduan daguela esan geike.

Izenen gaiñian, baiña, zer esan? Ba, gizartiaren aldaketiaren ondorixoz, etxe bakoitza bere izenaz ezaguketako usadixua, neurri haundi batian behintzat, galdu egin dala, eta nahiz eta edadekuen goguan eta aguan izen horreik oraindiok be ebalten diran, jente gaztiak ezittuela ebalten eta, ber-bertakua ezpada, ezagutu be ezittuela ezaguketan; normalian, kaliaren numerua esanda jiraitten da jente gehixena: “Kale Zaharra, 55ian bizi naiz”, eta kitto! Ez famelixa-izenik, ez persona-izenik, ez goittizenik ... Eta joera hori, bueltia etorri ezian, erabatekua bihurtuko da zoritxarrez, bizimodu barrixaren, globalizaziñuaren eta abarren eraginez.

Denpora batian, berriz, kanpoko atia jotia nahikua izaten zanian etxe sukalderañño sartzeko, etxe guztiak euren izena eukain, eta izen hori kaleko numerua baiño askoz inportantiagua zan; numerua bakarrik izaten zalako kontribuziñua pagaitteko, edota, *L' Abeille* konpaiñia ezagunarekin-edo, sutien kontrako segurua egitteko, hau da, gauza ofizialetarako, baiña beste danetarako etxien izenaz jiraitten zan jentia, ondorengo ejenpluetan ikusiko dogun moduan: Nungua da gizon hori? Erlenekua! Eta andra ha? Eperretxena! Eta mutiko horreik nundik urten daue? Kastillonetik! Nora fango naiz bizikletia konponketara? Luxionera! Eta alkondaria zurzittera? Sarrixeneko bordadorienara. Halaxe zan kontua!

Eta planuan ikusi leiken moduan, danetariko izenak ebalten ziran etxiak izentaitteko: baziran persona izenak (*Andina, Luxio, Tere, Bartolo, Romulo* ...); apelliduak (*Mendia, Artza, Elortza*...); baserri-izenak (*Eperretxe, Azkonitza, Castillo, Xelaa*...); ogibidiak (*petokin, errementari, plantxadora*...); jatorrixaren barri emuten euenak (*Bergara, Ale(g)itar*...); goittizenak (*Xezpal, Okan, Uxaluma, Txikiña, Kuxkur, Mantxiku*,...); kokalekua adierazten euenak (*Kurtzetxo, Kurtzekua*...).

Eta ezaugarri bat ekuain izen horreik danak: nahastu eziñak izatia, hau da, izena behin esanda nahikua zan danok jakitteko zeñien gaiñian berba egitten zan. Izenak ez eben sekula gaizki ulerturik emuten, adiera bakarrekua zalako: “Maria plantxadoria” bakarra zan, “Pilartxo Mantxikuena” zan moduan, edo “Joxe Castillo” edo “Joxe M<sup>a</sup> Paiko” bezalaxe. Eta holako izen bat aittatu ezkerro, herri danian ezagutuko euen, bakarra zan da! Horixe da, izan be, persona-izenaren ezaugarri nagusixenetakua, behin mentautu nahikua dala danak entenditteko.

Eta Kale Zaharrian pasaiten zana, alde zaharreko beste kale danetan pasaiten zan bardin-bardin: **Kanpantxon** (*Txoriña, Benturena edo Prexenena, Lukasena*...), **San Juan kalia** (*Otsuana, Azpeittixena, Kirriñena*...), **Agirreko Lopenian** (*Kirruna, Perosterenana*...), **San Antue kalia** (*Larrastegikua, Txaiñena, Kukarruena*...), **Mendiko kalia** (*Jauregialtzona, Beliana, Txapelena*...), **Artzain kalia** —gaurko Moia kalia— (*Maletana, Ontzigiñana*...), **Santa Mariñan** (*Aranena, Baruena, Antixena*...), **Patrua kalia** (*Pedrokotzena, Migelkapagiñena, Arseniona*...), **Kale Barrixan** (*Santosena, Ritana, Juanitosiana*...), **Atzeko kalia** (*Zubiana, Obixa(g)ana, Xamaniosiana*...), **Auzotxon** (*Brunona, Xokerona, Poparretxena*...) **Lekunbarrin** (*Bidabaingua, Altziñena, Burdintxuena*...), eta **Arantzazu kalia** (*Arruena, Txoriña, Diortxuena*,...).

Handik kanpora, geruago eginddako kale barrixak eta auzuak dagoz (Errekalde, Olakua, San Lorentzo). Eta horreittan danetan ezta ohittura hori gorde, edo ezta hain normala izan. Azkenik, baserri-auzuetan baserrixen izenak gorde dira, eta, oraindiok be, gorde ezeze, ebal be egitten dira.

Roberto Altuna



(\*) Itten: arrastua, pistia

## &gt;&gt; KONTU KONTARI

**Lanik ez, behintzat!**

Eta hor topaiten doguna, herrixa: herrixa edo herrixaren barruko zati bat. Nik berihela izena emun notsan zati bakoitzari. Ikusi neben gure herrixan bizi zala euskeraz berba egiten eben jente pobre, bozik bageko bat, eta bazala beste herri bat, ordurako seguru bizi zana. Ze, beste herrixak erderaz baekixen ondo. Oñatin neuri pasauta:

— 'Ai, nik erderaz baneki!'

— 'Zer egingo zeke, ba, erderaz bazeki?'

— 'Lanik ez, behintzat!'

Erderia ordurako beste kategorixa sozial bat zan. Mediku, eskribaun, botikarixo, maisu, abade eta 'lan'ik egiten ez euenena.



Hiru gizon bakarka. Bitoriano Gandiaga. Joxe Azurmediren epilgotik moldauta.

## &gt;&gt; BILATU ADITZ HONEIN SINONIMUAK:

- |                         |   |
|-------------------------|---|
| 1. Kunpliu              | A. Askatu                               |
| 2. Jirau                | B. Kaka egin; Obramentua egin           |
| 3. Bentziu              | C. Lehertu                              |
| 4. Jare egin            | D. Konplitu                             |
| 5. Errebentau           | E. Garaitu, gaintitu                    |
| 6. Zakartu              | F. Lortu                                |
| 7. Gizendu              | G. Hil                                  |
| 8. Librau; frakak eskau | H. Loditu                               |
| 9. Errendiu             | I. Itsusitu                             |
| 10. Mundu honetatik fan | J. 1.Menperatu. 2.Nekatu. 3.Kabitu ezin |

Erantzunak: 1d, 2f, 3e, 4a, 5c, 6i, 7h, 8b, 9j, 10g

## &gt;&gt; LOTU ADITZ LOKUZIÑO HONEIK EUREN ESANGURIAREKIN:

- |   |  |
|---|--|
| 1.-Lauhankan ibiltia edo katamarran ibiltia | a.- Makurtuta egotia ixixa lurra ipurdixarekin ikutu arte.                         |
| 2.-Buruzuti egittia                         | b.- Ume txikiñak oiñez ikasterakuan ebalten dauen karrotxo horren barruan ibiltia. |
| 3.-Mukukixo egotia                          | c.- Kurtziari patxo bat emutia.  |
| 4.-Taka-takan ibiltia                       | d.- Ume txikiñen moduan ibiltia, bi esku eta bi belauen gaiñian.                   |
| 5.-Mun egittia                              | e.- Korputzak bentzittia eta buruz behera fatia                                    |

Erantzunak: 1d, 2e, 3a, 4b, 5c





(\*) Itten: arrastua, pista

## >> TXISTE KONTARI

### Kristobal Kolon

Araozgo eskolan baeguen maisu bat xelebre samarra, neska-mutikui gogor egiten ostena, eta, egurra be, asko erreparau barik ebalten ebena. Hari *Kristobal Kolon* jarri otsain gaitzizena. Egun baten maisu horrek diar egin osten lehenengo aldiz eskolara etorri ziran bi mutikui:

— *¡Vengan aquí, ustedes!*

Eta lehenenguari:

— *¿Cómo te llamas?*

Mutikua billurrez ...

— *¡Bartolo!*

Zapla! Belarrondokua.

— *¡Se dice Bartolomé!*


Bigarrena hantxe ixixa kaka-fracetan eta..

— *¿Y tú cómo te llamas?*

— *¡Hilariomé!*

Hari be zapla! Belarrondokua.

— *¡Se dice Hilario!*



*Eskolako taldea eta maixua ■*

## >> BILATU ADITZ HONEIN SINONIMUAK:

- |                    |                                |
|--------------------|--------------------------------|
| 1. Larrittu        | A. Antzeman / Antza hartu      |
| 2. Tentau          | B. Miazkatu                    |
| 3. Arlet egon      | C. Erabaki, zirt edo zart egin |
| 4. Igarri          | D. Azpian hartu                |
| 5. Miaztu          | E. Estutu                      |
| 6. Erabagi         | F. Preso hartu                 |
| 7. Mendan egon     | G. Zirikatu, xaxatu            |
| 8. Mihaztu         | H. Gorde, jagon                |
| 9. Atxilotu        | I. Erne egon                   |
| 10. Zainpean jarri | J. Bakandu                     |

Erantzunak: 1e, 2g, 3i, 4a, 5b, 6c, 7d, 8j, 9f, 10h

## >> EUSKERAZ EGOGI: 'Hoba (izango) dok/n!'

Erderazko 'mejor será' edo 'más te vale' esateko, harridurazko esamolde hau ebalten dogu: **hoba (izango) dok/n!** Sarritan entzuten dan ezker, merezi dau goguan hartzeia eta balixaia. Hona hemen adibide batzuk:

HOBA (IZANGO) DOK/N ... !

**Hoba dok/n** ez egittia / Hobe dozu ez egittia

**Hoba dok/n**, sutara ez arrimaittia, erretia gura ezpadok/n!

**Hoba dok/n** harekin burrukan ez hasteia

**Hoba dok/n** lan barririk ez hartzeia, lehendik hasittako asko akabo barik dakok/n eta.

**Hoba dozue** beste bide hori hartzeia, garbixago dago eta.

**Hoba dok/n** kasu egittia eta ondo portaittia, bestela gorrixak ikusi biharko dittuk/n eta!

**Hoba izango da** etxe aldera fatia, hemen eztau girorik eta!

**Hoba izango dok/n** kasu egittia berandu damuketia baiño!



(\*) Itten: arrastua, pistia

## >> INGO XONAU! (1)

### Bakaziño ostian

Amaia: Uda honetan majo ibilli gaittuk Euskal Herrixan zihar!

Jon: Bai, horixe, urrin fan barik be majo ibilli lleken! Felipek eta konpaiñiak antolatutako ibillaldixari esker, gure Euskal Herrixa barru-barrutik ezaguketako aukeria izan xonagu.

A: Asko gozau xuagu: luziak izan barik, egitteko moduko ibillaldixak, paraje zoragarriak, lagunarte bikaiña eta kontziertuak, apartak!

J: Hemeretzi etapa izan dittun danera, hasi Arabako punta batian eta akabo Naparruako beste puntan, tartian urrugako tontor pillia igota.

A: Bai, garagarillaren hamalauan hasi gintzuan eta agustuaren batian akabo.

J: Astian hogeikotia, eta astegoixenetan hirurogei be kontau xonat, bertakuak eta kanpokuak: euskaldunak, katalanak, alemanak ..., leku askotakuak.

A: Eta gabeko giruaz zer esaten dok?

J: Afalosteko girua espeziala izaten zunan, patxadan, gustura barriketan edo txantxeetan, lagun artian.

A: Hi, eta kontziertuak?

J: Migelek ekarrittako taldiak ezittunan badaezpadakuak izan, e!

A: Ez horixe, Maddi Oihenart, Mikel Urdangarin, Maixa Lizarribar...

J: Bai, akordauta bakarrik oillo ipurdixa jarten xatan!

A: Eta orain zer? Udia orainddiok eztok akabo!


J: Bai, azkenengo kartutxuak herrixan erre biharko ditxunagu,

A: Orainddiok gauza asko egin bihar ditxuagu, egitten izten baxoskuai behintzat!

J: Orain berriz? Alde egin hortik billur horreikin!

A: Badakik, uda honetan herri danetako jaixak debekatuta egon dittuk!

J: Hi, hor konpon! Esanak esan, guk ondo pasau bihar ditxunagu herriko jaixak, ezititezela hona etorri holako koplakin!



## >> AUZOUNAK ETA BASERRIXAK LOTU

Araotz auzuak bederatzia auzouna dittu bere barrutixan. Jakingo zeuke esaten zein auzounatan dagozen –ena deklinabide-kasuan amaittutako Araozgo baserri honeik?

1. Txomena
2. Azkoitixena
3. Txurdiñena
4. Txopena
5. Lopena
6. Otsuena
7. Sesiñena
8. Txapelena
9. Popelabena

- a. Uriarte
- b. Aizkorbe
- c. Jausoro
- d. Zubia
- e. Araotz urruti
- f. Madina
- g. Agerre
- h. Ugaran
- i. Gerneta



(\*) Itten: arrastua, pista

## &gt;&gt; INGO XONAU (2)

## HIKAKO ESKOLAK

Jon: Zeozer entzun don honen gaiñian?

Amaia: Zeren gaiñian?

J: Ba, hemen ñabin irakurten lagun batek bialdu dosten whasapeko barrixa: hika egitten ikasteko ikastarua egongo dala.

A: Eztok izango? Etxakixat ezer!

J: Bai, eskolok zemendixan hasiko dittun, eta, gaiñera, emakumiandako bakarrik izango dirala xixon. Zergatik ete don hori?

A: Ba, izango dok emakuma gehixenak hika berba egitteko modua galduta dakogulako! Dakigunak banaka batzuk gaittuk.

J: Bai, halaxe don, baiña ez pentsau; guk, mutillen artian, hika sarrixago egitten baxonagu be, hanka-sartze galantak egitten ditzunagu!

A: Bai, halaxe dok, bai, baiña mutillena betik gorde dok hobeto, eta zuei, gaizki egin arren, dana barkaketan xatzue!

J: Bai, badakin, arrok dakogun pribilejiuak!

A: Bueno, bueno, kontu horrekin harrokerixa gutxiago, e!

J: Barkatu, neska, ezton hainbestesteraiñokua izan!

A: Izan badok, ezpadok, gai horrekin kontuz! Zer gura dok, ba, hi xaxaka hasi eta nik pakian izteia?

J: Bueno, itzi degigun kontua!

A: Eta jentia apuntauco dok, horregatio, eztok?

J: Askok be ezittun bihar, eurak onak eta fiñak izatia nahikua!

A: Jo, ba, nik Mirariri eta Joneri esango xostiat, hika egitten etxakixai ta. Animaitten badittuk, hirurok apuntauco gaittuk, gero alkarrekin hika egitteko be!

J: Hori, hori, izena emun, eta gero ikasittakua praktikan jarri. Baiña nik keja bat sartu bihar xonat: etxatan ondo pentsaitten eskolok emakumiandako bakarrik izatia!

A: Bueno, mutillendakua be etorriko dok, trankil egon! Itzi lehenengo emakumioi galdutakua irabazten eta gero zuek be eukiko dozue atiak alderik alden eregitta gura dozuen beste ikasteko!



## &gt;&gt; AUZOUNAK ETA BASERRIXAK LOTU

Olabarrieta auzuak bi auzouna besterik ezittu bere barrutixan. Jakingo zeuke esaten zein auzounatan dagozen —ena deklinabide-kasuan amaittutako baserri honeik, Basaurin [Basabin] ala \*Olazaranen?

a. Basauri

b. Olazaran

1. Fernanduen
2. Simonena
3. Juanpuena
4. Bernalena
5. Sankristobalena
6. Isabelena
7. Mantzena
8. Tiruena

\*Olazaran: ezkutautako toponimo edo leku izena.